



elgoibar **ikastola**

ORIENTAZIO PLANA



AURKIBIDEA

<u>ZAILTASUNAK DITUZTEN IKASLEEN EGOKITZAPENEN JARRAIPENA</u>	<u>3</u>
<u>EBALUAZIO PSIKOPEDAGOGIKOKO PLANA</u>	<u>6</u>
<u>PROFESIONALEN AHOLKULARITZA ETA FORMAZIOA</u>	<u>7</u>
<u>IKASLEEN ETA FAMILIEN AHOLKULARITZA ETA FORMAZIOA</u>	<u>8</u>
<u>EBALUAZIO SAIOETAN IRAKASLE TALDEAK HARTUTAKO ERABAKIEN JARRAIPENA EGIN</u>	<u>9</u>
<u>ERAKUNDEEKIN ELKARLANA GARATU</u>	<u>10</u>
<u>EZ OHIKO MATRIKULAK BIDERATU</u>	<u>11</u>



Zailtasunak dituzten ikasleen egokitzapenen jarraipena

Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen egokitzapen planaren helburua Ikastolako, zein kanpoko baliabide material eta pertsonalak, ikasleria anitzaren aurrean, modu egoki baten antolatzea da. Horretarako arloen emaitzei erreparatzen diegu.

1.- Errefortzuak:

Ikasteko nolabaiteko zailtasunak izanik, curriculum egokitzapen handirik behar ez duten ikasleek jasotzen dute. Tutore eta irakasleek ematen dituzte, eta helburuak lortzen saiatzen dira edukiak ahalik eta gutxien aldatu gabe. Neurri hauen aurrean Ikastolako irakasleria guztia inplikatur dago.

Orientaziotik egindako proben emaitzetatik zein ebaluazio saioetatik erator daiteke errefortzua egitea.

2.- Hezkuntza Indartzeko Banakako Plana (HIBN)

Aurrekoa nahiko ez denean eta ikasketa prozesuan zailtasun handiak dituenetan eta helburu akademikoetara heltzeko zailtasun handiak izango dituela ikusten denean honako dokumentu hau osatzen da. Neurri honen eraginkortasuna bermatzeko irakasleen elkarlana ezinbestekoa da. Dokumentu hau ikasturte edo etaparen bukaeran betetzen du tutoreak gainontzeko irakasleen laguntzarekin ikaslearen ezaugarri nagusiak adieraz. Ondoren, ikasturte hasieran irakasle berak edo tutore berriak dokumentu bera osatzen du ikasturte horretako beharrei aurre egiteko beharrezkoak izango diren indartze neurriak zehaztuz. Azkenik, indartze neurrien balorazioa egiten da ikasturte bukaeran.

3.- P.R.E.E.

DBH 1-2.mailetan Gazte-Euskara-Mate errefortzatzeko 2. irakasle bat gela barruan sartzen da etekina errealagoa eta zehatzagoa izan dadin.

4.- Etapan urte beteko luzapena eta errepikapena.

Ikasle batzuk zikloko helburuak lortzeko zailtasunak izaten dutenez, beste urte batez etapan gelditzeko aukera eskaintzen zaie. Neurri hau irakasle taldeak Ebaluaketa Saioan hartzen duen erabakia izaten da.



5.- Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen laguntza.

A) Aurreko neurriak nahikoak ez direnean, aplikatzen dena.

H.P.Bak iturburu zergati diferenteak izan ditzake: testuinguru sozial eta kulturala, hezkuntza, historia, ez gaitasun psikiko, zentzumenezkoak edo mugimenduzkoak, jokabide nahaste larriak edota gaitasun intelektual apartak besteak beste.

Aipaturiko hauek laguntza espezifikoak behar izango dituzte eskolarizazio osoan edota gehiengoan, eta kasu batzuk, Berritzeguneko oniritziarekin, nahitaezkoak diren Curriculum Egokitzapen Norbanakoak (CEN /ACI), bai material aldetik, eta baita zenbait arloetan kurrikularrak ere.

Pedagogia Terapeutikako irakasleak, ohiko irakasleekin elkarlanean, premia bereziak dituzten ikasleei laguntza ematearen eginkizuna du.

Interbentzioa banan-banan, talde txikietan edota erreferentzi taldean ematen da, beti ere, lehentasuna emanez gela barruan laguntza eskaintzeari eta, gelatik kanpo aurrekoa ezinezkoa denean.

Premia Bereziak dituzten ikasleekin jarraituz, Ikastolatik kanpoko laguntzak ere jasotzen dituzte. Hauetako batzuk Eskola Mapak deritzonak jasotzen ditu eta Berritzeguneko teknikariarekin adosten dira:

- Hezkuntza Laguntzako Espezialisten orduko moduluak,
- Logopedarengana joango diren ikasleen zerrenda;
- Terapeuta Ocupacional-aren beharra;
- Fisioterapeutaren beharra;
- CEN / ACI : berriak egin edota berriztatu;
- Kale Dor Kayiko erakundearen ordu laguntza.
- CRI :ikusmen urritasuna duten ikasleentzako laguntza.

B) HH02 urteko matrikula egiten denean HPB dokumentoan familiek Hezkuntza Premia bereziak egon daitezkeela adierazten dutenean.

Ikasleen matrikulazioa egiten denean Hezkuntza Premia berezien dokumentua betetzen dute familiek, bertan ikasleek izan ditzaketan beharren berri ematen dute. Orientazio



departamentuaren ardura da behar berezi horiei erantzutea. Horretarako Hezkuntza saialak dituen errekurtsio guztiak kudeatzen ditu

C) Eskolak behar bereziak detektatzea

Haurraren garapenean arazoak egon daitezkeela detektatzen denean orientazio departamentuak berehala hartzen du parte. Prozesu horretan eragile desberdinetatik (ongizate saila, Berritzegunea, osasun zerbitzuak) informazioa lortzea eta trukitzea da, irakasle taldeak ahalik eta informazio osatuena izateko bere erabakietan aurrera egiteko. Hezkuntza Premia bereziak detektatzen direnean Berritzeguneko aholkulariekin jartzen gara kontaktuan beraiek dagozkien balorazioak egin ditzaten Eskola Mapan sartzeko ikaseleak

6.- Ikasle etorri berriak.

Hezkuntza sisteman berandu sartu eta irakas hizkuntza ez dakiten edota curriculumean atzeratuta dabiltzan ikasleentzat, Ikastolak, P.T.kako irakaslearen laguntza eta Euskara irakasteko irakasle jakin batzuen, Hizkuntz Errefortzua deritzona, eskaintzen die. Azken honena aldakorra da, Administrazioak ematen duen diruaren arabera antolatu behar delako.

Kanpoko Erakundeekin Elkarlanean.

Gure ikasleen araberrako ezaugarriak eta beharrak kontutan izanik, beraiekin nolabaiteko lotura duten erakunde desberdinekin ere elkarlanean aritzen gara.

Hala nola:

- Udaleko Ongizate Saila,
- Udaleko “ Elgoibarko Izarra “ elkarteko Euskara Errefortzuko taldea,
- Down S. Fundazioa,
- GAUTENA,
- ASPACE,
- CRI....
- ADAHIGI



Ebaluazio psikopedagogikoko plana

Ebaluazio Psikopedagogikoaren helburua aniztasunari erantzuteko neurriak hautatzea eta Ikastolan aplikatzea da.

Horretarako, ziklo edota etapa bukaeran taldeko proba desberdinak pasatzen dira. Lortutako emaitzak, orientatzaileak tutoreei azaltzen dizkie eta bileren bidez.

Ondoren, hartu behar diren neurriak bien artean erabakitzen dute eta martxan jartzen dira.

Hauek dira pasatzen diren probak eta mailak:

Gaitasun probak:

LH 4, LH 6, DBH 2 eta DBH 4.ean aplikatzen dira. Arrazonamendu Logikoa, Hitz Ulermena, Espezialitatea.... ren berri ematen digute.

Heldutasun probak :

HH 5 urteko mailan aplikatzen dira. Lengoaia eta Logika neurtzen dute. BADI-G froga estandarizatua da aplikatzen dena

Irakurketa-Idazketa :

LH 1. eta LH 2.ean aplikatzen dira. Bi prozesu hauen apendizaiaren maila erakusten dute.

Bestalde, ikasturtean zehar edozein mailatan banaka zein taldeka antzematen diren beharrak ere, ebaluatuak izaten dira.



Profesionalen Aholkularitza eta formazioa

Orientazio departamentua Ikastolako profesional guztien aholkularitza egiteaz arduratzen da. Hau orientazio departamentuak irakasle taldearekin elkarlanean diharduen momentu oro ematen da. Horrez gain, kasu berezietan irakasleek orientabide eskabidea egin dezakete. Aholkularitza:

Ikasturtean zehar irakasleekin elkarlana zehaztuta dago

1.-Ikasleen jarraipen bilerak mailaka

Trimestre bakoitzaren hasieran orientatzailea eta ziklo horretan lanean diharduen pedagogika terapeutikako irakasleak mailako tutoreekin biltzen dira. Bilera hauen helburua, ikasleen jarraipena egitea da, gure aholkuarekin ahalik eta neurri egokienak hartzeko zailtasunen aurrean. Informazio trukaketa eta zikloen arteko koordinazioa da bilera hauen beste helburuetako batzuk.

2.-Ebaluazio saioak

Hiruhilekoan behin ikaslearekin lan egiten duen irakasle talde osoa, orientazio departamentua eta ikasketa burua biltzen da. Hemen emaitzak aztertu eta horiek hobetzeko erabakiak adosten dira. Ikuspegi anitzetik aztertzen da ikaslea eta hemen, orientazio departamentuaren egiteko handia akademikoak ez diren hainbat aldagai aintzat hartzea eta eskolaz kanpoko profesionalen ekarpenak azaltzea da

3.-Orientabide eskabideak

Beharra dagoenean irakasle guztiek orientabide eskabidea egiteko aukera du bere jardunean sortze diren zalantzak argitzeko edo elkarlana sustatzeko.

4.-Formazioa

Orientazio departamentuak ebaluazio saio, ikasleen jarraipen eta orientabide eskabidea aztertuta urtero formazio proposamenak egiten ditu gure irakasle taldearen profila aberasten eta egungo problematikei egokitzen joan dadin.



Ikasleen eta familien aholkularitza eta formazioa

Aholku Orientatzailea

DBHko 4. mailan, ikasleek aurrera egin ahal izateko beharrezko duten informazioa eta orientazioa jasoko dute ikastolaren aldetik. Informazio hori modu desberdinetan bideratuko da.

Batetik, familiekin egiten den ikasturte-hasierako bileran azalduko da ondoren dauden aukeren laburpen bat. Bestetik, tutoretzako orduan gauza bera egingo da ikasleekin ere. Kasu horretan, azalpena zabalagoa eta zehatzagoa izango da. (Bi saio izan daitezke hori azaltzeko)

Lehenengo hiruhilabetekoan, orientatzaileak gaitasun-testak pasako dizkie 4. mailako ikasleei.

Bigarren hiruhilabetekoan, tutoretzako eskoletan, ikasleek autoezagutza-galdeketa osatuko dute. Horretarako, bost-bat saio kalkulatu behar dira. Orain erabiltzen ari garen materiala zaharkitua dagoela iruditzen zaigu, beraz, orientazio-departamenduaren bidez material berria lortzeko eskaera egin dugu. Bitartean, daukagunarekin jarraitu beharko dugu.

Era berean, bigarren hiruhilabeteko horretan, orientatzaileak ikasleak hirunaka hartuko ditu euren kezkek, zalantzak eta galderak modu pertsonalizatuagoan argitzeko. Taldeak tutoreek egingo dituzte, ikasleak hitz egiteko eroso senti daitezkeen taldeak osatuz.

Azken aurreko pausoa, orientatzailea eta tutoreen arteko bilera izango da. Bertan, guztien artean, ikasle bakoitzarentzat egokien deritzoten bidea erabakiko da. Hori apirila aldera izango da.

Azkenik, apirila-amaiera aldera (aurrematrikulazioek ezartzen dituzte data zehatzak), tutoreek familiekin banakako bilerak egingo dituzte, geure aholku-orientatzailea zein den azalduz.

Ikasturte amaieran, notekin batera, ondorengo dokumentazioa ematen zaie ikasleei:

- Gaitasun-testen emaitzen grafikoak.
- Autoezagutza-galdeketa taula (ikasleek beraiek tutoretzako orduetan osatutakoa).
- Aholku-orientatzailea (Tutoreek osatuko duten dokumentua).



Familien Aholkularitza

Familiek, aukera daukate nahi dutenean orientazio departamentuko orientatzailearekin biltzeko.

Ebaluazio Saioetan irakasle taldeak hartutako erabakien jarraipena egin

Arestian aipatu den bezala orientazio departamentua zailtasunak dituzten ikasleei erantzuteko ekintzen erregistroa eta profesionalen aholkularitza egiten du. Hau, besteak beste, ebaluazio saioetan egiten da. Saio honen erregistroa aktaratu egiten da, orientazio departamentua arduratzen da neurri hauen jarraipena egiteaz irakasle taldearekin batera.



Erakundeekin elkarlana garatu

Zailtasunak dituzten ikasleei ahalik eta erantzun egokiena emateko ezinbestekoa da umearen ingurua dabilen profesional desberdinen arteko elkarlana. Puntu honetan orientazio departamentua da irakasle talde eta gainontzeko profesionalekin elkarlana sustatzeko eta koordinatzeko arduraduna.

Hainbat dira prozesu honetan gure aliatuak:

Udaleko Gizarte zerbitzuak

- Gizarte Langileak
- Gazte saileko hezitzaileak (Gazteleku, Ludoteka)

Berritzegunea

- Erreferenteak
- Aholkularia
- Logopeda
- Fisioterapeuta
- Terapeuta Okupazionala
- IBT CRI

Osasun Zerbitzuak

- Pediatrak
- Beste espezialista batzuk

Beste elkarteak

- Logopedak
- Psikopedagogoak
- Adahigi
- Down Fundazioa
- GARATU
- GAUTENA
- ARANSKI



Ez ohiko matrikulak bideratu

Ikasle bat ohiko matrikulazioz kanpo etortzen denean Harrera eta Aniztasunari erantzuteko planak aplikatzen da. Laburbilduz, orientazio planetik hauek dira egiten ditugun ekintzak

- -Familiei harrera egin: eskolaren aurkezpena egiten da, gure izaera azaldu
- -Etorri berria den ikaslearen informazioa bildu bere egokitzapena ahalik eta egokien izan dadin.
- -Bildutako informazioarekin eta irakasle taldearekin batera harrera plana martxan jarri:
 - Taldeari esleitu
 - Hasierako ebaluazioa zehaztu.
 - Murgilketa egokiena izan dadin pausoak zehaztu
- Dagokionean, behar dituen errekurtsioak eskaini
 - Euskara salbuespena kudeatu
 - Jantokia
 - HIPI
 - Berritzeguneko Aholkulariaren behaketa